M_10487
R_4701

A.T.V.
3274

INSTITUCION SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria

# EUZKO-ABESTIJAK

(CANTOS VASCOS)

EUZKELTZALE-BAZKUNA'K
ARGĨTALDUBAK

# EREСЕṘKIJAK

(Himnos)

# EUZKO-ABENDEAREN ERESEŔKIJA

¡Gora ta gora Euzkadi!
¡Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari!

Areitz bat Bizkaya'n da
Zaŕ, sendo,
Zinđo,
Bera ta
Bere Lagija lakua;
Areitz-ganian dogu
Gurutza
De una
Beti geure
Goi-đuru.

¡Abestu gora Euzkadi!
¡Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari!

*Arana-Goiri.*

# ITXAŔKUNDIA

(Euzko-Gastedijen Ereseŕkija)

(*Bizkayeraz*)

Azkatasun-eguzkija
Basotik urten da;
Bere argija edonun
Arin zabaltzen da.
*¡Itxaŕtu zaiz, bizkałaŕak,*
*Aupa, euzkeldun gustijak:*
*¡Gora, gora antziñeko lagijak!*

Ixilik ba-zagoz danok,
¿Zer dozube entzuten?
Ara, gauŕ guda-santsuak
Gaŕuzan deŕuten.
*¡Itxaŕtu zaiz...!*

Aŕpegija goŕiŕuta
Darakus euzkijak;
Goŕijagotuko dira
Bertoko mendijak.
*¡Itxaŕtu zaiz...!*

*Araaa-Goiri.*

## OÑAZ-LOYOLA ETA LIKONA'TAR IÑAKI BIZKAYA'REN ZAINDARI DEUNARI BIZKATARAK

(*Bizkayeraz*)

¡Iñaki,
Jaungua'k bidalduba
Ludijan ixatera
Josu'ren
Gudarijen Buruba!
Batzarak
Autu zindun
Bizkatafen
Zain Deuntzat;
Zeu zara
Zaindari ta
Jaun onena
Geuretzat.
¡Iñaki,
Entzun, aren, eiguzu
Ta geure opea artu!
Bijotza
Bizkatarak
Jayotzetik
Damotzu:
Zeuria da
Beria...

Baso, mendi, ibai, aru...
¡Zeru-gotik,
Deun-Iñaki,
Jagon, ba,
Bizkaya!
Jago-ixu
*Jaun-Goikua,*
Jago-ixu
*Lagi-Zara;*
Areyo
-Aurian Zeuk
Agindu
Bizkatara...
Gudean sarturik,
Ezpatea artuta
Bizkataren aldez
Donge ta areyua
Indar zerutaraz
*Zatitu osoro ta...*
¡Zori-ontsuba
Bizkaya beti ixango da
Zeuk, Iñaki, zainduta!

*Arana-Goiri.*

## OÑAZ-LOYOLA ETA LIKONA'TAR IÑAKI, GIPUZKOA'REN ZAITZARI DEUNARI GIPUZKOARAK

(*Gipuzkeraz*)

¡Iñaki,
Jainkoa'k bidalduba
Ludiyan izatera
Josu'ren
Gudariyen Buruba!
Batzařak
Autu zindun
Ipuzkařen
Zai deuntzat:
Zu zera
Zaitzari ta
Jaun onena
Guretzat.
¡Iñaki,
Entzun, ařen, zaguzu
Eta gure emaitza ařtu!
Biyotza
Ipuzkařak
Jayotzetik
Demazu:
Zurea da
Berea...
Baso, mendi, ibai, ařu...
¡Ipuzkoa
Beti zaitu zuk ongi,
Iñaki!
Zai-zazu
*Jaun-Goikoa,*
Zai-zazu
*Lege-Zařa,*
Etsaven
Ařean zuk
Agindu
Ipuzkařa...
Gudean sařturik,
Ezpatea ařtuta,
Ipuzkařen aldez
Gaizto ta etsaya
Zeruko indařakin
Zatitu osoro, ta...
¡Zori-ontsuba
Beti Ipuzkoa
Izango da
Zuk, Iñaki, zaituta!

*Arana-Goiri.*

# MENDIGOXALIEN EREȘEȒKIJA

(*Bizkayeraz*)

¡Guazen danok Jel-aldez,
Uri, baso mendi,
Goiko bidetik azke,
Azke jaȓteko Euzkadi!
(*Biȓiȓan*)

Algustiduna goyan,
Gixona luȓian,
Euzko-Abenda zaȓa
Luȓ onen ganian. (biȓ.)

Urtzi deunak egiñik
Azke bixitzeko,
Atzeȓi-goȓotuak
Bustaȓturik dauko.

¡Itxaȓtu, euzkotaȓak,
¡Itxaȓtu ta jagi!

¡Guazen danok Jel-aldez,
Uri, baso, mendi,
Azke ta zorijontsu
Jaȓteko Euzkadi!
(*Biȓiȓan*)

*Enbeita'taȓ Kepa.*

# ABESTI ABEŔKOYAK

(Cantos patrióticos)

# ¡EUZKOTAŔAK GARA!

(*Bizkayeraz*)

*¡Euzkotaŕak, euzkotaŕak gara!*
*¡Gora Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa!*

I

Ezkara españaŕak,
Ez aŕotzaliak,
Ez maketuen edo
Motzen aizkidiak.
Geure Ama danaren
Semiak geu gara:
Bera Euzkadi dala
Geu gara beriak.
*¡Euzkotaŕak...*

II

Geure Euzkadi maŕia
Motzak menbetuta,
Nai biaŕ dogu danok,
Olan dakuskula,
Bere azkatasuna,
Azkatasun utza,
Ezpa-gagoz nastuta,
Motzak ezpa-gara.
*¡Euzkotaŕak...*

III

Antziñeko enda zaŕ,
Garbi ta bakana,
Orain maketuenak
Betuta daukona,
Biztuko da ta betik
Jagiko da gora,
Eta euzkotaŕena
Euzkadi ixango da.
*¡Euzkotaŕak...*

*Arana-Goiri.*

# JAGI, JAGI, EUZKOTAŔAK

(*Zubero-eresija*)

I

Jagi, jagi, euzkotaŕak,
Lasteŕ datoŕ eguna,
Lasteŕ datoŕ eguna,
Soŕkaldetik agiri da
Argi gozo biguna.
Bere auŕian, bilduŕtuta,
Igesi dua iĺuna,
Igesi dua iĺuna.

II

Jagi, jagi, euzkotaŕak,
Zabaldu da eguna,
Zabaldu da eguna.
Soŕkaldetik agiri da
*Jel*-eguzki edeŕa.
Bere argijak berotuko
Dausku geure bijotza,
Dausku geure bijotza.

III

Jagi, jagi, euzkotaŕak,
Eta batzau gaĺezan,
Eta batzau gaĺezan.
Aŕtu danok izkiĺubak
Eta auŕera goyazan.
Geure abeŕi-areyuak
Gustijak il daiguzan,
Gustijak il daiguzan.

*Bustintza.*

# ¡¡LENAGO IL!!

(*Bizkayeraz*)

¿Ze ikusten dabe
Neure begijok?
Au danau dakust
Galduta:
Berezi, baso,
Muru ta mendi,
Uri, baseŕi
Ta dana...
Motzak saŕtuta,
Saloberiok,
¡Ara biŕindu
Dabela!
¡Il nayago dot
Ikusi baño
Abeŕijaren
Amaya!

¿Noz euzkeldunak
Jaungoikua'ren
Ixen deuna aiztu
Len eben?
Orain motzak lez
Loŕuten dabe
Loidun erderaz
Egiten;
Ekandu onak
Itxita, baltzak
Aŕtu diŕube
Gauŕ emen.
¡Goiko Jaun ona,
Eŕuki zadi
Aiztu zabenoi,
Bai, aŕen!

*Arana-Goiri.*

# ¡ENE AMA!

(*Bizkayeraz*)

Bixi ezta
Ludi gustijan
Ene Ama
Baxen edeŕa, baña ez
Ain gaxua,
Gustiz edeŕa
Bera dalako,
Eŕbestepian
Jausi da...
¡Ara baĩa
Soŕtu diĩuzan
Semiok, ba,
Berari bixitza kentzen
Dautsoela!

*Arana-Goiri.*

# MENDIKO NEGAŔA

(*Bizkayeraz*)

*Ene Abeŕi laztana:*
*Jausi zara eŕbestepian...*
*¡Obia eriotza da!*

Zeure basotik
Atzo igoten zan
Eskari ona
Zerura.
Gauŕ erdeldunak
Saŕtuta,
Axia amen
Birauz bete da.
¡Zelan ondiño il etzara!

Ekandu onak
Asabeari
Zoruna emon
Len eutsezan;
Ara motzenak
Gauŕ emen
Zeure bijotz
Garbija usteltzen.
¡Ta zeu, Ama, etzara il-
[tzen!

Gurutz zurija
Baltziŕu da ta
Areitz oŕleya
Oriŕu.
Geratu ezer
Etxatzu:
Seme onik,
Ama, eztozu.
¡Il, Abeŕija, zakigu!

Ez-egin negaŕ:
Etzaut, Ama, nai
Negaŕ-egiñik
Zu ikusi:
Zeure negaŕok
Motzari
Eragiŕen
Dautso baŕe-iŕi.
¡Il, Ama, lasteŕ! ¡Il za-
[di!

*Arana-Goiri.*

# GAURIK BALTZENA

(AŔATS-ABESTIJA)

(*Bizkayeraz*)

¡Đan... dan... dan...!
Eguzkijak iges-einđa,
Đana iluntan.
Bizkaya estal
-Bei gaupian,
Lagi-Zaŕa gal-eban ta
Baltziīu zan.

*Arana-Goiri.*

# OTSEÑA ZARA

*(Bizkayeraz)*

Zorijona
Zeure laguna zan
Zeure lagijen
Aldijan.
Noz-nai
Zeure buruba ziñan:
Gatxa zer dan etzenkijan.
Itxurik,
Zeuk ařotza onetsi, baña,
Ta emon zeuntson bijotza.
Ordutik ona
Otseña zara:
Ĵabia dozu
España.

Ara zelan
Euzkeldun eřija,
Ĵausi zarean
Lexara.
Lotsa...
Lotsarik eztau ořetara
Dagonak azpiratuta.
Begirik
Ori ikusteko ba-daukazu,
Noz-edo-noz, Ama, itxařtu,
Ta ořban ori
Kendu odolaz;
Ařen, negařez
Ez kendu.

*Arana-Goiri.*

# UṘKIOLA'RAKO BIDIAN *

*(Bizkayeraz)*

I

AUZOKUAK

—¿Ain arin
Nora yuan
Uso zurijena?
—Mendira,
Andoni'ri
Egiṙera aṙena.
—¿Zein aṙen
Uṙkijola'n
Deunari eṙeko?
—España'n
Neba ona
Ez gaiztotuteko.

II

EXKONAK ETA LENENGO UMIA

—Jon Ander,
¿Ze eskiñiko
Yeutsagu Deunari?
—Ume au
Emongeutsan
Bijotzez Berari.
—¿Zelan, ba,
Geuretxu au
Ixangok beria?
—Ba-dona
*Jaun-Goiko* ta
*Lagi-Zaṙ*-zalia.

III

AṘIṘEA TA BIḶOBA GEXUA

—Aṙiṙa,
¿Deuntxubari
Ze eingeutsat eskatu?
—Laztana,
Lasteṙtxuben
Agigun osatu.
—Ta ¿gero
Zelan eskaṙ
Emongo deutsat nik?
—Seme on
Ta bizkaṙaṙ
Zintzoena ixanik.

*Arana-Goiri.*

---

* *Maritxu ¿nora zuaz?* lez abestuteko.

# ¡¡KEN!!

(*Bizkayeraz*)

¡Kendu, kendu
Maketuok eta
Euzkotaŕ maketozaliok!
¡Bota, bota
Azuŕbaltzok eta
Euron lagun gustijok!
¡Kendu, kendu,
Bota, bota
Geuria galtzen dagozanok!
¡Kendu, kendu,
Atara, bota, bai,
Zapal nai gabezanok!

*Arana-Goiri.*

# GURE BIDAŔAK EZ ENTZUTEKO...

*(Bizkayeraz)*

Gure didaŕak ez entzuteko,
¿Nun zara, aīa Sabiño?
Zeuri negaŕez urtuten gagoz
Alde-zendubanezketiño.
Etsayagaīik zeu il ba-ziñan,
¿Neure bijotzak zer diño?
Zeu ilda, bere, etsai gogoŕak,
Zeu ilda, bere, etsai gogoŕak
Bixi-dirala ondiño

Zeu ixan ziñan, Sabin maīia,
Euzkotaŕ seme azkaŕa,
Zeu ixan ziñan abeŕtzalien
Maxu jakintsu bakaŕa.
Orain, Sabin zuk zeureganduta
Zerubetako batzaŕa,
Maīeko dozuz Jaungoiko ona,
Maīeko dozuz Jaungoiko ona
Eta lengo Lagi-Zaŕa.

*Enbeita'taŕ Imanol.*

# ¡¡ATERA, BELAŔIMOTZAK!!

(*Gipuzkeraz*)

Belaŕimotz,
Entzun zazu,
Denbora gutxi
Euzkadi'n daukazu.
Urte asko igaro ƀaño len,
Urte asko igaro ƀaño len
Ebro'tik aruntza jun
Biaŕko dezu.
¡Gora Ĵaun-Goikua!
¡Gora Lagi-Zaŕa!
¡Gora Euzkadi!
¡Gora euzkotaŕa!

Lasteŕ ikusikogu
Euzkadi azkatuta
Eta belaŕimotzez
Gustiz garbiĩuta,
Gustiz garbiĩuta
Eta gaizkatuta.
¡Gora Ĵaun-Goikua!
¡Gora Lagi-Zaŕa!
¡Gora Euzkadi!
¡Gora euzkotaŕa!

## ¡GORA EUZKADI!

*(Bizkayeraz)*

Euzkadi'n bein jayozkero,
Euzkotaŕ zintzo ixan biaŕ-da,
Arana-Goiri'taŕ Sabin
Geure aŕa-lakua.
Eztogu biaŕ geu-aŕtian maketorik,
Naikua gara geu iñor etoŕi-barik;
Augaŕik gure didaŕa beti ixango da:
¡Gora Jaun-Goikua ta Lagi-Zaŕa!

## ABESTU, EUZKOTAŔAK

*(Bizkayeraz)*

Abestu, euzkotaŕak, bai,
Abestu gogoz,
Abeŕijaren opaz
Oyu eta santzoz. (*biŕ.*)
Abeŕija dogu
Ama laztana,
Semiak gauz-eta
Zintzo abestu Amari.

*Aŕiandiaga Abea.*

# ¡GAIZKA-DAIGUN!

(*Bizkayeraz*)

Euzko
Euzkotaŕak gara
Ta maȓe-dogu
Abeŕija,
Geu-Abeŕija.
Euzko
Euzkotaŕak gara
Ta maȓe-dogu
Abeŕija.
Gerturik gagoz geu
Bere aldez emoteko
Daukogun odol gustija,
Geure zanetako odola.
¡Aupa, aupa, mutiȴak!
¡Goraldu daigun Euzkadi
Azkatasuna emonaz berai!

---

Geuk gura dogu anayak ekaŕi
Abeŕijaren aldera,
Geuk biaŕ dogu gaizkatu Euzkadi.
¡Gaizka-daigun, ba!

*Altuna.*

# ORAINGO BIZKAI-BIZKAŔAK *

(*Bizkayeraz*)

Abeŕijak *Bizkaya* ixena dau;
*Bizkaŕdi* bat zan len bere;
Baña orain daukazan *bizkaŕak*
Ixena zikintzen dautse.

*¡Auxe da, anayak zorigeztua:*
*Au lotsa andija da argiro!*
*Bizkaya'ri bere ixena berez*
*Garbi geratu eixako.*

Bizkai-semien *bizkaŕ* senduak
Aŕotzak ezaŕiĩako
Kate lotsadizko zama aztuna
Pozik dakaŕe poliĩo.
*¡Auxe da...*

Baña euron *bizkaŕak* senduak
Dira, ta kate-ganian
Euron buruben saltze-diruba
Ekaŕten dabe askotan.
*¡Auxe da...*

Gitxi dira Bizkai-seme onak,
Gitxi dira bizkaĩaŕak;
Gitxi, bizkaĩaŕtasun-zamea
Zintzorik dautsen *bizkaŕak*.
*¡Auxe da...*

*Arana-Goiri.*

---

* *"Ai, ai, ai, txiki ¿nungua zara"*, edo *"Aŕantzalia"* lez abestuteko.

# GEURE IKUŔIÑA

Atozte, bada, atozte, bada,
Ikusi daigun ikuŕiña,
Geuria da-ta, geuria da-ta,
¡Gora Euzkadi azkatuta!
Euzkotaŕ gustijok batu-ezkero
Eztogu biaŕik
Ondo bixitzeko
España-gaberik.
Euzkotaŕ gustijok batu-ezkero
Eztogu bilduŕik
Madrid'en saŕtzeko
Euzkotaŕ-ikuŕiñarekin.

# ARANA ETA GOIRI'TAŔ SABIN'I

*(Bizkayeraz)*

¡Gora Euzkadi!
¡Gora beti!
¡Gora Arana-Goiriṫaŕ Sabin!
¡Jaun-Goikua, Lagi-Zaŕa!
¡Gora euzkotaŕak!

Euzkadi'ren semiak
Dabiltza deṫuten,
Erdu, Sabin maṫia,
Erdu geu biztuten.

Eztogu auŕkiṫuten
Euzkadi'n gixonik
Zeuri baŕdindasunik
Emongo dautzunik.

*Deba-Abando.*

# ¡AI, MIKEL, MIKEL, MIKEL! *

(*Bizkayeraz*)

*¡Ai, Mikel, Mikel, Mikel!*
*¡Au da zoritxaŕa!*
*Jayo nazan urija*
*Ezin ezautia.*

Goxion igaro naz
Ikastola-auŕetik,
Ta ikaratuta nauka
Dodana ikusi.

———

Ber-bertoko txotxuak,
Bat be kendu-ezik,
Gustijak lotsa-baga
Erdera-egiñik.

———

Oraintxe, aspaldiko,
Azalduko dautzut:
Guk semien *maixutzat*
Maketo bat dogu.

———

Neskatoen *maistrea*
Euzkeldun utza da:
Erestuna imińeko
Azuŕbaltz ·deŕa.

Bijak ekaŕi yakuz
Erdera irakasten,
Euzkera eztala ta
Ezetarako bez.

———

¡Ai, Mikel, Mikel, Mikel!
Olanik ixanik,
Lasteŕ eztogu ixango
Seme-alabarik.

———

*Dotriñarik* umiak
Ikasi-eziñik,
Aziko yatzuz danak
Bape jakin-barik.

———

Euren buruba galdu,
Galdu lagunak be,
Ta geure uri gustija
Galduko dauskube.

*Arana-Goiri.*

---

* *¡Ai, Peru, Peru, Peru!* lez abestuteko.

# ¡BOGA, BOGA!

(*Bizkayeraz*)

*¡Boga, boga,*
*Ařantzale!*
*¡Boga!*

I

España-axiak
Bai-garuaz
Danok, bai, atara.
Berak dakaz bertorantz
España'n semiak:
Geuria zan urija
Geuretzat oin ezta.

II

Atxon ařtian
Azi nintzan,
¡Ene uri mašia!
Orain zeugandik nua
Uřun-uřunera:
Olan zu ikusi baño,
Zu ikusi ez oba.

III

Ostera, be, gu
Etořtzian,
Motzena ba-zara...
Urak iruntsi zaike
Danori, gaxua,
Zu guk auřkišu-barik
Motzak menbetuta.
*¡Aguř, aguř!*
*¡Boga!*
*¡Mašia, aguř!*

*Arana-Goiri.*

# GUAZAN MENDIRIK-MENDI

(*Bizkayeraz*)

Guazan mendirik-mendi,
Euzkotaŕ gastiak,
Guazan aldatzaz gora
Mendigoxaliak.
Axe osasuntsubaz
Bixitxa indaŕtzera,
Abeŕi gustijari
Aguŕ-egitera.

Tontoŕera elduta,
Abestijai ekin,
Santzo eta iŕintzi,
Ujuju indaŕtsu ein.
¡Gora Jaun-Goikua ta
Gora Lagi-Zaŕa!
¡Gora gora betiko
Abeŕi laztana!

*Aŕuz.*

## ¡AI, KEPANDON!

*(Bizkayeraz)*

Esan nora, Kepandon,
Ire alabea
Otseña ixateko
Bidaldu duan, ba.
*¡Ai, Kepandon, Kepandon!*
*Eu diru-zalia;*
*Ilda be ibiliko az*
*Beti diru-bila.*

Nora beya jatera
Bakik eruaten:
Umia bidaltzeko
Nora begilu bez.
*¡Ai, Kepandon...*

Eztakijala diñok
Eta euri zer ta,
Diruba aŕtu-ezkero
Poz-pozik agola.
*¡Ai, Kepandon...*

Diruba irabazteko
Umia galdu hok,
Diru-barik entzungok
Bein betiko *oŕ konpon.*
*¡Ai, Kepandon...*

*Arana-Goiri.*

---

* *Madalen Busturik'ko* lez abestuteko.

# ¿ZETARA ATOŔ ONA?

*(Zubero-eresija)*

*Belaŕimotza:*
*¿Zetara atoŕ ona?*
*Atzera ua*
*Eure abeŕira.*
Ango luŕ edeŕak
Gogoz landu egixak,
Eta jangok ondo,
Ta alan i ta ni
Adizkide beti.

Eure abeŕijan
Ogasunak itxiĩa,
¿Zetara etoŕi?
Ai, belaŕimotz
Eztaukak bururik.

Emen etxauk ezer
Gose, biaŕa baño,
Ua, belaŕimotz,
Ua emetik
Eure España'raño.

*Bustintza.*

# ¡AZKATU BEDI!

(*Bizkayeraz*)

Emen, lagun-aŕtian,
Azkatasun osoz,
Abestu biaŕ-dogu
Abeŕija gogoz.
Saŕi areyo-aŕtian
Ixil-biaŕ.
¡Nasatu bijotzak!
¡Entzun beiz abotsak!
Goraldu orain Ama,
Abeŕi laztana.
¡Azkatu bedi!
Jarei ta azke beti
Ikustiaŕen, ba,
Odol au ixuri.
¡Baŕiz!
Abeŕija azkatziaŕen,
¡Egiz!
Bixitxea emon pozik.

*Eleizalde.*

# ABEṘI MAT̃IARI

(*Bizkayeraz*)

Lora polit̃a ontzijan
Begiratzen dodanian,
Orduban zaukot ¡ene mat̃ia!
Neure goguan.

Txori polit̃a kayolan
Bar̃uratzen dabenian,
¡Ai! ordubantxe zaukot, mat̃ia,
Neure goguan.

Mutikotxuba ikastolan
Il-il̃ik sar̃tzen danian,
Zeure gomuta bixi-bixija
Daukot goguan.

*Bustintza.*

# AṪONAREN ESANA

*(Bizkayeraz)*

Neure semian seme,
Neure iḷoba laztana
Ezeik aiztu aṙonak
Irakasten dauskana
Lenen maṫe-egik beti
Geure Jaungoikua
Eta onen uŕengo
Euzkadi geure Ama.

*Bustintza.*

Gu euzkotaŕak gozak,
Utz-utzez euzkotaŕak,
Odolez garbi eta
Gogoz sendo-zinduak.
Guk Euzkadi yuagu
Abeŕi bakaŕa;
Bera goraldutia
Dok geure biaŕkuna.

*Altuna.*

# ZEURETZAT BIXITXA

*(Bizkayeraz)*

Negaŕez ikusten zaut,
¡Ene Abeŕija!
Zeure umiak zaŕube
Ondatu gustija.
¡Ai, ene Ama!
Ona nun dakaŕtzudan
Zeuretzat bixitxa.

*Bustintza.*

Mosu otza ein dautzu
Erijotz ankeŕak,
Ta zeure bijotz onan
Leŕu da odola.
¡Ai, ene Ama!
Aŕen ¡oi! aŕtu neuri
Zeuretzat bixitxa.

*Eŕazti.*

# GOI-GORANTZ BETI

*(Nabaŕa-eresija)*

Gorago beti
Zure gogo ori,
Ĵaso-ixu, euzkotaŕa, bai sendoki.
Abeŕijak dei-gal̄u,
Uŕgazi-eske dogu:
¿Nok emongo eztautso
Iradu?
Goi-gorantz beti
Gogo zin-l̄o ori:
Abeŕi Ama biaŕ dogu eutsi.

*Eleizalde.*

# GERTU GAGOZ

(*Bizkayeraz*)

Euzkadi polit, edeŕa,
Erdi-il̃ik eguan;
Abenda gaxuagorik
Eztago ludijan.
¡Gaxua!
¡Gaxua!
Euzko batek didaŕ-einda,
Zutik jaŕi giñan;
Gertu gagoz bere aldez
Asteko lanian.

*Bustintza.*

# ¡OÑAZEZ!

*(Nabaŕa-eresija)*

Aldi baten gure ama,
Abeŕi maŕagaŕija,
Semiok genkusan eduŕ
Baŕija baxen garbija.
Orain ostera
Itxasi yako
Aŕotzen dongakerija.
¡Au tamal mingotsa!
¡Au oñaze latza!
Oŕbandu dala Abeŕija!

Aldi baten, liŕi jayo,
Edeŕtasunez jantzija,
Aldi baten baratz bikain,
Dongaentzako ertsija.
Oraintxu, baŕiz,
Baltzez josiŕa,
Kutsatu yako irudija...
¡Ez negaŕik, Ama!
Zeu garbitziaŕen
Emongo dogu bixija!

*Eleizalde.*

# ITXAṘTU ADI, EUZKO-SEMIA

(*Nabaŕa-eresija*)

Itxaŕtu adi, euzko-semia,
Ken-egixak lo txaŕok,
Geure Abeŕi Ama Euzkadi
Dala jakin biaŕ dok.
*Laran-la ¡gora Jaun-Goikua!*
*Laran-la ¡gora Lagi-Zaŕa!*

Uri, baseŕi, zelai, mendi ta
Geure lagi edeŕak
Gal-yozak aŕotz-zalekerijak
Amorde... ta... erderak.
*Lanran-la, ¡gora...*

Abeŕi maŀe au bixi ba-da
Zoŕ-yautsaguk Sabin'i,
Urkamendiŀik kendu ta onek
Yualako imiñi.
*Lanran-la, ¡gora...*

*Enbeitaʼtaŕ Kepa.*

# TXAKUṘ-TXIKI

*Txakuŕ Txiki, Arin-Arin* ta *Betikua*

Dira mendigoxaleko mutil azkaŕenak.
Mendira igonezkero
Danok alkaŕekin,
Eztago geuretzako
España'n gixonik.
¡Gora Betikua!
¡Gora Txakuŕ-Txiki!
Eta ¡gora Arin-Arin,
Danok alkaŕekin!

*Deba.*

# GOIKO MENDIJAN

(*Bizkayeraz*)

Goiko mendijan
Eduŕa dago
Eŕekaldian
Ixotza,
Neu zeugandik
Azke nago-ta,
Pozik daukat
Bijotza.

*Eŕikua.*

¡Ene Abeŕi
Polit, edeŕa!
Zeu-lakorik ¿nun
Dago, ba?
Zeugaz beti
Bixi gura dot
Eldu-aŕte
Erijotza.

*Bustintza.*

# NIK BAI-DUT MAITEÑO BAT

(*Benabaŕa-eresija*)

Nik bai-dut maiteño bat.
¡Oi!, ¡zoin hura lako!
Ez da tipi, ez handi,
Bai bien aŕteko.
Begia du edeŕa,
Urdin ezti oso,
Bihotzian saŕthu zaut
Ez-bai'tzaut jelgiko.

*Eŕikua.*

¡Oi, Abeŕi laztana,
Nik maŕe-zaudana!
Ikusi gura-zenduket
Azke ta garbija.
Neure bijotz-jabia
Zeu bakaŕik zara;
Pozik zebaŕen emongo neuke
Neure bixitxa.

*Galastegi.*

# ANTON AIZKOŘI

(*Bizkayeraz*)

Anton Aizkoři,
Anton Aizkoři;
Aizkoři'ra juanda,
Damututa etoři.

*Eřikua.*

¡Ene Abeři!
¡Ene Abeři!
Maře oni gustija,
Berarentzat naz ni.

*Bustintza.*

# IRUTEN ARI NUZU

(*Benabaŕa-eresija*)

Iruten ari nuzu,
Khilua geŕian,
Ardura dudalarik,
Ardura dudalarik,
Nigaŕa begian,
Ardura dudalarik
Nigaŕa begian.

*Eŕikua.*

Benetan da poliŕa
Geure abeŕija.
Bijotzez maŕe-daigun
Bijotzez maŕe-daigun
Berak maŕe-gaxan.
Gustirik gaxuena da-ta
Geure abeŕija.

*Galastegi.*

# IḺAZKIṮAN

(*Laburdi-eresija*)

Argizagi edeŕa, argi-egidazu:
Oraño bide luzean jun behaŕa nuzu;
Gau huntan nahi nuke maitia kausitu,
Haren bortarano argi-egidazu.

*Eŕikua.*

Ortze ixiḻan argi-dagijan iḻazki edeŕoi:
¿Geure zori au-lakorik noz-ete dok ikusi?
Len azke ixanok oin yoguk aŕotza nagusi...
Bide latzau argiḻu itxaroz, gentza-geznarijoi.

Ala-arantzak bijotz gaxuok zulatzen yoskuzak.
¿Zegaḻik, ba, baŕe-iŕi dagik geure zori baltzaz?
¿Ala ortze-goḻik dakusk eguḃantz baŕija?
Itxaro gozo au lasteŕ ¡oi! bete egik geuretzat.

Iḻun-aŕtez yagirk argija malkuok legoŕtzen.
Eure bidez ua, iḻazki, bestetzuk argitzen.
Zorun-euzkija odoltsu ḃaso-ostez jagi dok:
Bere izpijak euzko-semiok yuez azkatuten.

*Eŕazti.*

# TXORI UṘETXINDOṘA

*(Zubero-abestija)*

Txori uŕetxindoŕa,
Hots, emak enekin
Maitenaren atela
Biak alkhaŕekin;
Erakutsi izok gero
Abots ezti batekin
Haren adizkide bat
Bai-dela hirekin.

*Eŕikua.*

¡Oi, txori poliŕa! ¿zer
Abil oŕ abesten?
¿Abeŕijan azkena
Daustak iragaŕten?
Ezeistak olakorik
Aŕatu be, aŕen,
Gurau-neukek ilŕia
Neu-Ama baño len.

*Bustintza.*

# UŔUNDIK

*(Nabaŕa-abestija)*

Uŕundik ikusten dut,
Ikusten mendiya;
Beraren gibelian
Dago nire eŕiya.
Yadanik dut aditzen
Zoriyon aundiya:
Yuale maitiaren
Asperen eztiya.

*Eŕikua.*

Gastetxu nintzanian
Eŕitik urtenda,
Negaŕez atzeŕira
Jun nintzan lan-bila.
Oin pozik abeŕira
Nentoŕan atzera...
¡Gaxuoi! Oindiño az
Aŕotzen jopuba.

*Eŕazti.*

# TXORITXUBAK KAYOLAN

*(Zubero-eresija)*

Txoritxubak kayolan
Iŕunik dau abesten,
Daularik bertan zer jan,
Zer edan,
Basua gura-ixaten:
Azke, azke
Bixi-ixanaz
Bai-da gomutaten.

Uŕezko espetxian
Bixi-da oin txorija;
Joranez, baña, basora
Begira
Bixitxa yako itxungitzen
Azke, azke
Bixi-ixanaz
Gaxua da iltzen.

*Etxebaŕi.*

# AGOTA

(*Zubero-eresija*)

Argi-azkoŕian jinik
Ene aŕesekila,
Beti beha entzun nahiz
Nunbaitik zu-abotsa.
¿Ardiak nun vtzi tvzv?
¿Zerentako eŕada
Nigaŕez ikhusten deizvt
Zure begi edeŕa?

*Eŕikua.*

# ALOSTOŔIA

(*Gipuzko-abestija*)

Alostoŕia, bai, Alostoŕia,
Alostoŕe'ko zurubi luzia.
Alostoŕia'n nenguanian gorubetan,
Bela baltza *kua, kua, kua, kua* leyoetan.

*Eŕikua.*

Mendijen ganetik agiri dira
Bela aŕotz ziŕalak geuri begira.
Gosez geugana bein etoŕiŕa, ¡geu gaxuok!
Zati-biŕinduko gabez euzkotaŕok.

*Altuna.*

Euzkadi gaxua ¿nun jausi zara?
Il-zorijan dozu zeure buruba.
Motza saŕtuta, azkatasun-barik, jopu-einda,
¡Jagi, aŕen, jagi ¡asteŕ edo il, Ama!

*Eŕazti.*

# ¡JANTZARA, MUTIĪLAK!

(*Laburdi-eresija*)

Aurten iñungo jairik
Baseŕi polit onetan:
Amaika jantza biogu egin,
Arnasarik aŕtuteka.
Geure bijotza alaīuta,
Poz-pozik egin̄a ¡ujuju!,
¡Jantzara, mutiīak, erdu!

Euzkadi-ekandubak
Maīe-maīerik bai-doguz;
Eztogu gura jantza zikiñik,
Garbi-zaliak gara gu.
Geure bijotza alaīuta,
Poz-pozik egin̄a ¡ujuju!
¡Jantzara, mutiīak, erdu!

*Altuna.*

# ¡TXAKUŔ GALDUBA!

(*Bizkayeraz*)

Txakuŕ goŕi, polit bat
Galdu yaku guri;
Ezaugaŕija bauko,
Argiĺu ba'ledi.
Belaŕi baltzak eta
Bustana beĺegi,
Iruntsiko leukela
Ogiĺan libra bi.

*Eŕikua.*

Nik maĺe-dot bijotzez
Euzkadi edeŕa,
Euzkadi bai-dalako
Euzkotaŕen Ama.
Ene Ama kuĺuna,
Maĺe-laztantxuba:
Eutsiz neure bijotza
Ta neure gogua.

*Altuna.*

# GOIZIAN ON

(*Nabaŕa-eresija*)

Goizian on,
Aŕatsian on,
Matsaren zumua beti duk on,
Eta beti duk on.
Etxera abiya ta juan ezin,
Erori eta bertan etzin,
Eta bertan etzin.
Beŕiz abiya ta juan ezin,
Erori eta bertan etzin,
Eta bertan etzin.

*Eŕikua.*

Antziñeko
Asaba zaŕak
Izkiluz ebezan Abeŕitik
Jauŕti eŕbestaŕak.
Orain, baŕiz, dirudun danari
Zabaltzen yakozak zoliki
Beso euzkotaŕak.

Aldi baten
Euzko-semiak
Txiruak zuazan ta landeŕak,
Baña baŧa azkiak.
Orain ostera aŕotzik baltzenei
Saldu yaruatsoeguzak
Odol ta Lagijak.

*Eleizalde.*

# TXORI UŔETXINĎOŔA UDAN

(*Zubero-eresija*)

Txori uŕetxinďoŕa
Udan da abeslari,
Orđuban bai-daulako
Basuan janari.
Neguban ezta agiri.
¡Ez-al-dago, ba, eri!
Udan ba-da agiriko
Naz ni gotasauko.

*Bastintza.*

Geure abeŕi-basuak,
Geure mendi-zelayak
Lagunik maŕentzat auke,
Uda-txori bizkoŕa.
Samuŕ-samuŕ abestu,
Alai geure gogua.
Poztuteko Euzkadi,
Erdu ona beti.

*Altuna.*

# LEYOTXUTIK

*(Nabaŕa-eresija)*

Leyotxutik leyotxura
Aizia otza,
¡Oi! aizia otza.
Saŕtu bedi baŕenera:
An ¿zertan dago?
An, bai, ¿zertan dago?

*Eŕikua.*

Uŕunetik abeŕira
Bidia latza,
¡Oi! bidia latza.
Txori ba'nitz, niñuake
Arantza egaz,
Bai, arantza egaz.

*Etxebaŕi.*

# LILI EDEṘ BAT

(*Benabuṙa-eresij*a)

Lili edeṙ bat bai-dut nik
Aspaldi begiztaturik;
Bañan ez nainte auzaṙtzen
Aren eskura aṙtutzen,
Ba'naki zer den galtzia,
Jun nindaiteke aldera.

*Eṙikua.*

Nik maite nuban kutuna,
Nere atsegin-zoruna,
Ibiḷi bai ta bai egon,
Ez dut aṙkitzen iñiñon.
Biḷaka beti bai-nabil,
Baña da, agiyan, nunbait il.

Ibai-ertzetan galdetzen
Dot iya ote-dan emen.
Batzutan dagit oyuba,
Bestetan, beṙiz, uluba.
"Maitia, diyot, nun abil?"
Baña da noski nunbait il.

*Eṙenderia Abea.*

# ¡IT̄UNA!...

(*Bizkayeraz*)

¡Oi, Eduŕnetxu mat̄ia,
Len bijotz-alaya!
¿Zer donala-ta eldu yan
Oin gogora it̄una?
Goratu bijotza,
Auŕpegija alat̄u,
Pozik ibil̄i ta
Ikusiko đon
¡Bixitxa donan on edeŕa!

Bijotzeko aizkidia,
Aŕtetu gura-non;
¡Ezton loŕtuko, mat̄ia,
Ezton, ez, loŕtuko!
Bijotzan saŕ-yatan
Miñaren arantza,
Il̄unaren otza.
¡Au zoritxaŕa!
¡Betiko jun yatan alaya!

¡Oi, Eduŕnetxu mat̄ia,
Len bijotz-alaya!
Alegiaren eŕpia
Saŕ-don eu-bijotzan.
Uŕeratu egin
Neure bulaŕera
Eu-burutxuba ta
Esan eistan
Eu atsekabetuten auna.

Goiko Jauna'ren Lagija
Aiztu-ezetsit̄a:
¡Geure Abeŕi gaxuau
Ilđeko zorijan!
Txorijak ixilđu,
Eguzkija il̄undu,
Lorak zimeldu,
¡Au zoritxaŕa!
¡Betiko jun yatan alaya!

*Galastegi.*

# MAT̄ASUN-ABESTIJAK

(Cantos amatorios)

# ORTZEKO IXAŔ EDEŔOK

*(Bizkayeraz)*

Ortzeko ixaŕ edeŕok,
¿Nun zeben argija?
Neure mařetxubaren
Begi zolijetan.
Eu, maře, baño
Polifiagorik
Ezin neuk ikusi.
Ixaŕik edeŕena
Neutzako eu beti.

*Galastegi.*

# ITXARO-IXAŔA

*(Bizkayeraz)*

Ortzian ixaŕ edeŕa
Gabaz ageŕtzen da:
Zure irudija niretzat
Edeŕagua da.
¡Oi mařia! ¡oi, laztana!
Nire poza ta atsegiña:
Zu-barik nire bixitxa
Mingoitz, iluna da.

*Eŕazti.*

# MAITIA, ¿NUN ZIRA?

(*Zubero-abestija*)

Maitia, ¿nun zira?
Nik etzvtvt ikhusten,
Ez beŕirik jakiten,
¿Nurat galdv zira?
¿Ala althatv ote-da·zure asmia?
Hitz eman zenereitan,
Ez behin, bai beŕitan,
Enia zinela.

Alhaba dienei
Eŕanen dit orori:
So-eidaziet eni,
Beha ene eŕaneri;
Gasteŕo direlarik untsa zvxendv:
Handitv direnian,
Berant date agian,
Nik bai-dakit untsa.

*Eŕikua.*

# EGVNT̃O BATEZ

(*Zubero-abestija*)

Egvnt̃o batez nindagualarik
Maitenarekin leihuan,
Eŕan ukhen niriozvn
Hura niala goguan,
Ene oinhaze mingatzaz
Uŕikal haŕtv lezan.

*Eŕikua.*

Mendi-ganian artzain gaste dago
Ardi otzanak zainduten,
Goi-aldera begira ta
Baŕuko pozaz abesten.
Baña otsuak elduta,
Bat aŕtu ta dau ilt̃en.

Abeŕi-artzañak geronek gara,
Euzkadi zain biaŕ-dogu,
Begi zoliz begiratu,
Otsorik eztat̃en eldu,
Aŕotz-otsuak Euzkadi
Dabelako inguratu.

*Altuna.*

# BETIKO AGUŔ

(*Laburdi-eresija*)

—Betiko aguŕ-egiten natoŕkin, ene maŕe;
Iŕunak neure bijotzau oñazez yon leŕtuten:
Lasteŕ ¡oi! neugaz aiztuta beste bat doken maŕe.

卐 卐 卐

—¿Zegaŕik egiŕen daustak betiko aguŕ neuri?
¿Uste-dok ene bijotzon eztala maŕasunik?
Maŕe bat bakaŕik yuat: maŕe oi az erori.

# ¡MENDIYAN BAI-DA EDEŔ!

(*Benabcŕa-abestija*)

¡Mendiyan bai-da edeŕ epheŕ txango-goŕi!
Ene maitiak ere beŕtziak iduri; (biŕ.)
Eni hitzeman eta gibelaz itzuli.

Ene bihotza duzu zuganat erori,
Eta zuriak aldiz haŕiya iduri: (biŕ.)
Ene begi gaizuak nigaŕez ithuŕi.

(*Zubereraz*)

Oreña lasteŕ dua horen aitziñian
Huriyan saŕtzen dvzv ahal dianian;
Ez bere nahiaz bena bai bere behaŕez;
Zv ere hala-hala zabiltza arauez.

*Eŕikua.*

## SARATAṘA NAIZELA

*(Laburdi-eresija)*

Saratafa naizela
Orok bai-dakite;
Senpere'n bai-dudala
Txoriño bat maite.
Ura bezain polita
Beŕtze bat daite,
Baña nik ezpai'nuye
Ura beŕtzeik maite.

*Eŕikua.*

## AṘANOAK

*(Nabaŕa-eresija)*

Aŕanoak bortietan
Gora dabiltza
Egaletan.
Ni ere len anderekin
Ebilten kanberetan.
Orain aldiz ardura-ardura,
Nigaŕa dizut
Begietan.

*Eŕikua.*

# LUŔAREN PIAN

(*Laburdi-eresija*)

¡Luŕaren pian saŕ-nindaiteke
Maitia, zure ahalgez!
Bost oldozketa egiñik nago
Zurekin ezkondu-behaŕez,
Atia ertsi baŕniaz eta
Beti etxian nigaŕez,
Gogua arantzaz josita, bai ta
Bihotza miñez leŕtuta...
¡Ene oñazez hil-erazteko
Soŕtua ziñan, arauez!

*Eŕikua.*

# MUTHIL GASTIA

(*Benabaŕa-abestija*)

Muthil gastia, bilo-horia,
¿Burian duka erokeriya
Uste duk, bai, naski,
Haizu dela bethi
Gorthiaren egitia
Andre orori.

*Eŕikua.*

# GASTETASUNAK BAI-NERABILA

*(Benabaŕa-eresija)*

Gastetasunak bai-nerabila
Aizian ainhara bezala.
Gabak igazten zaitzat ardura
Egunak ba'lira bezala.
¡Oi! Ardura nabila maitiagana.

Maite-nauzula zuk eŕaitiaz
Ni ez naiz alaituten;
Baizikan ere nere bihotza
Aŕas duzu alegetzen.
¡Oi! ¡Zeren ez nauzun utzitzen!

*Eŕikua.*

# BERTEṘETXEN KHANTORIA

*(Zubero-eresija)*

Haltzak eztv bihotzik,
Ez gaztanberak ezvŕik.
Enian uste eŕaiten ziela
Aitunen semek gezvŕik.

*Eŕikua.*

I

Ene mar̄etxu-laztana,
Ene bijotzaren jabia:
Zeu zara neure atsegin betia,
Zeu zara neure bixitxa.

II

Neskatil polit-lirańa,
Euzko-basoko usanua:
Gogoz dopaltzut neure mar̄asuna,
Aŕtuzu ene bijotza.

*Altuna.*

# BORTIAN AHVZKI

(*Zubero-eresija*)

Bortian Ahvzki, hur hunak osoki;
Neskatiḻa eyeŕak han dira ageri;
Hirur bai-dirade, ¡oi! bena leŕdenik;
Beko Nabaŕ orotan ez dvte beŕdiñik.

Neskatiḻa eyeŕa, ¡oi begi-nabaŕa!,
¿Nuntik jin izan zira bortv-gain huntara?
¿Garazi'ko aldetik nahi-nian bezala,
Ahvzki-vthuŕila hur hotzen haŕtzera?

*Eŕikua.*

Mendijan axia garbi ta edeŕa,
Bertan indaŕtuten da sendoro bulaŕa,
Antxe dozu, gaste, osasun betia:
Ixan zaŕe, ba, beti mendigoxalia.

*Bustintza.*

# NERE MAITEA

—Nere maitea:
¿Bańda nun ziñen
Nik bortañoa joitian?
—Buruyan ere
Min nuyen eta,
Ezpairik gabe ohian,
Ezpairik gabe ohian.

*Eŕikua.*

—Bijotz-erdiẗik
Maẗe-zaudaz nik
Zeu, amatxu, ta Euzkadi.
—Maẗe-gagixak
Neu ta abeŕija,
Euzkotaŕ gustijen ama
Euzkadi ona dok-eta.

*Galastegi.*

# ARGIZARIAK ZELVTIK

(*Zubero-abestija*)

Argizariak zelvtik
Argitzen dizv eyeŕki;
Ene maite poĺita, eztvzv ageri
¡Zelvko Jinko Jauna!
¿Zer egiñen dvt nik,
Zer egiñen dvt nik?

—Zvri nurk zinhetsi eztvzv,
Guziak eŕiz ari zaitzv;
Bathv orotzaz atsegin zira zv,
Bat haŕ-ezazv,
Hura aski dvkezv
Hoŕez baitin nvzv.

*Eŕikua.*

# NESKATIĹA BAT

(*Zubero-eresija*)

Neskatiĺa bat bai-dot
Maŕe bijotzetik,
Alkaŕen maŕe gara
Bijok aspaldiŕik.
Bere on ixatiaz
Nauko zoraturik
Baŕdiñik eztot uste
Iñun be dagonik.

*Bustintza.*

# ORAIN BAI-NUAZV

(*Zubero-abestija*)

Orain bai-nuazv heŕitik
Ardura dizvt nigaŕa begitik.
Bat maithatv nian gogotik,
Bihotzaren erdi-erditik;
Alde-egin behaŕ dizvt itunki.
¡Ai! ¡ei! ¿nula biziko niz ni?

*Eŕikua.*

# TXORIT̃UA, ¿NURAT UA?

(*Zubero-abestija*)

Txorit̃ua, ¿nurat hua bi hegalez aizian?
Nabaŕa'lat juaiteko elhvŕa dvk bortian:
Junen gvtvk alkhaŕekin hura hurtv denian.

Hasperena nabilua maitiaren atela:
Habil eta eŕan izok nik igoŕten haidala;
Bihotzian saŕ-akio, hura eni bezala.

*Eŕikua.*

# ZELVKO IZAREN BIDIA

*(Zubero-abestija)*

Zelvko izaŕen bidia
Nik ba'neki,
Han niro ene maite gastia
Zvxen khausi;
¡Bena gauŕ jagoti nik hura
Ez ikhusi!

Haritz gaste bat nik aihotzaz
Ebakirik
Vdvri zait ene bihotza
Zauritvrik:
¡Eŕuak eroriko zaitzola
Eihaŕtvrik!

*Eŕikua.*

# POLITA ZERADELA

*(Gipuzkeraz)*

Polita zeradela
Diyozu, diyozu;
Zu etzera edeŕa,
Soñekua dezu.
*¡Ai, nere txoragaŕiya!*
*Animaren gaizkaŕiya.*
*Gaizto engañagaŕiya,*
*¿Nundik zera etoŕiya?*

Etzaitut nik utziko
Bakian, bakian,
Naiz ta niretzat izan
Kaltian, kaltian.
*¡Ai, nere txoragaŕiya!...*

*Eŕikua.*

# SIASKA - ABESTIJAK
(Canciones de cuna)

# LO, LO

(*Bizkayeraz*)

Ubabatxuba, lo, lo, lo,
Euk orain eta nik gero,
Euk gura-duan orduren baten
Bijok eingo yuagu lo.

*Eŕikua.*

# NI EZ NAIZ SOMORUA

(*Nabaŕa-abestija*)

Ni ez naiz somoŕua,
Izanagaitik lau begi;
Atoz, atoz onera,
Etzuazela igesi.
Tranlarai, tranlarairairai...

*Eŕikua.*

# SEASKA-ALDIAN

*(Nabaŕa-abestija)*

Din-dan boleran,
Elizako gauzetan;
Din-dan boleran,
Gure auŕa asaŕian.
Din-gin-din, dan-gan-dan
Din-gin-din-dan;
Din-gin-din, dan-gan-dan
Din-gin-din-dan.
Din-dan boleran,
Gure auŕa asaŕian.

*Eŕikua.*

# NERE AURA, LOTXO

*(Nabaŕa-eresija)*

Nere auŕa, lotxo, lotxo;
Nik eman deikizut bi kokotxo,
Aŕatsaldian txokolatia.

*Eŕikua.*

# AUŔTXUOI...

(*Naƀaŕa-abestija*)

Auŕtxoi, egik lotxo bat,
Emango diyat gozua;
Aitak bat eta amak bi,
Ta Goiko Jaunak amaƀi.
¡Lo!...

*Eŕikua.*

Lo, Lo, gotzonen aŕtian,
Ludi txatxaŕoz aiztuta;
Zorijona goyan yagok,
Bian eztok miña baño.
¡Lo!...

*Etxebaŕi.*

# BONBOLONTENA

*(Nabaŕa-abestija)*

Bonbolontena,
Ene laztana,
Ez egin lorik basuan;
Azeritxubak ...
Eruango au
Eŕbikuma azalakuan.
¡Lo!...

*Eŕikua.*

Ozti zabalan
Ixaŕ-aŕtian
Argi-yagik iĺazkijak,
Beren izpijak
Iĺuntzen dozak
Begitxu oyen aldian.
¡Lo!...

*Eŕazti.*

# LUA, LUA...

(*Bizkayeraz*)

Lua, lua, seintxu laztanoi,
Lua, lua bilđuŕka,
Goi-goyan daukak eure Amatxuba,
Kuĩunoi, eure begira.
¡Lua, lua!...

Eure lua-zain yagon gotzonak
Lasteŕ, bai, eruango au;
Donokijan Ama-onduan baño
Iñun-ez-iñun obeto.
¡Lua, lua!...

*Galasteqi.*

# ITXASUA

(*Laburdi-abestija*)

Itxasua laño dago
Bayona'ko alderaño.
Nik zu zaitut maitiago
Txoriyak beren umiak baño.

Gure oroiz aita dago
Lañopian gaberaño.
Nik zu zaitut maitiago
Ařaitxuak ura baño.

*Eřikua.*

# TXALO-PIN-TXALO

(*Bizkayeraz*)

*Txalo-pin-txalo,*
*Txalo ta txalo.*
Katutxuba mizpira
-Ganian dago.
Ba-dago, bego,
Bego, ba-dago.
Zapatatxu bařijai
Begira dago.

Eřeka-oxiñak
Agořtu dira,
Ezta ezer bixi
Euretan.
*Txalo-pin-txalo.*

Txorijak dagoz
Kantak aiztuta
Ixil abotsa
Gerizpetan.
*Txalo-pin-txalo.*

Siaska-onduan
Lo-lo kantatzen
Neure laztanari
Begira.
Ubabatxuba, lo, lo, lo.
*Eu, eu...*

*Azkue.*

## BOL̄ON BAT ETA BOL̄ON BI

*(Nabaŕa-abestija)*

Bol̄on bat eta bol̄on bi.
Bol̄on putzura erori.
Txoriak ere kantatzen dute
Txiruliruli-txiruli.
Soñu oŕetan dantzatuteko
Mirentxu eta Gergori.

*Eŕikua.*

## BINBILI-BONBOLO

*(Nabaŕa-abestija)*

Binbili-bonbolo, senda lo.
Akeŕa Prantzia'n ba'lego,
Akeŕak kanta,
Idiak dantza,
Astuak tanboliña jo.

*Eŕikua.*

# USKUŔTZ - ABESTIJAK

## (Cantos religiosos)

# ABESTU DAYOGUN

(*Oteunari ereseŕkija*)

(*Bizkayeraz*)

¡Abestu dayogun Maîasunari!
¡Abestu Ĵaunari!
Urtzi emen da,
Erdu, guŕtzaîe oyek,
Guŕtu daigun Ĵosu Eroslia.
¡Gora Ĵosu Ĵauna!
Ortze-ludijok,
Ĵaun-Goikua aintzaldu.
Ospe ta aintza Zeuri,
Goi-Bakaldunoi,
Maîasuna Zeuri,
Ĵuango maîe.

*Aŕiandiaga Abea.*

# OGI ZERUTIK

*(Bizkayeraz)*

*Ogi zerutik etořija,*
*Zu zara gure poz gustija.*

Bildots dontsuba
Ona emen,
Gixadi-gatxak
Kentziařen,
Oteundegijan
Bera dago,
Ludija Goyaz
Bat eřeko.

Gauza gustijen
Egilia,
Goi ta Ludiko
Bakalduna,
Geure ařtian
Bixitzen da,
¡Geure zoruna
Bai-da andija!

Eztot, ez, begiz
Nik ikusten,
Ziñetsi, bařiz,
Bai, ziñesten,
Oteunan dala
Josu emen,
Geu onetsi ta
Mařatuten.

*Bustintza.*

# GOXEKO IXAṘA

(*Bizkayeraz*)

Goxeko ixaŕa,
Gustiz argija,
Jaunan Ama da
Geuretzako.
Eguzkiřik lez
Goxeko ixaŕak,
Gořik argija
Berak dauko.
*Aguŕ, argi garbi,*
*Argi-egin geuri.*
*Ekaŕi ba,*
*Jaunan Ama,*
*Eguzkija.*
Eguzki-auŕez
Ixaŕa dua:
Jaunan auŕetik
Datoŕ Ama.
Ixaŕ-atzetik
Eguzki utza:
Miren-ostian
Josu bera.
*Aguŕ, argi garbi...*
Egunan deyez
Agiri ixaŕa:
Jaunaren deyez
Miren jayo.
Ixaŕ garbija,
Otoi au entzun:
Geuri be argi
Egiřeko.
*Aguŕ, argi garbi...*

*Arana-Goiri.*

# ABESTU BIAŔ-DOGU

(*Bizkayeraz*)

Abestu biaŕ-dogu:
¡Gora Ama Neskutza!
Eskiñi dagijogun
Berari bijotza.

Eskatu dagijogun
Geuretzat laguntza;
Egizko Ama da-ta,
Ama lez, on utza.

*Bustintza.*

# ¡¡AGUŔ!!

(*Bizkayeraz*)

¡Aguŕ, Josu'ren Ama,
Neskutz mařetsuba,
Aguŕ itxasoko ixaŕ,
Geure jabolia.
Aguŕ, Donoki-euzki,
Eskařez betia,
Aguŕ, obendijuen
Lioŕ ta abarua.

Baña zeugandik alde
Bijotzak ezin-dau.
¿Nogana juango da?
Zeugan bixi nai-dau.
Neskutz baŕdinbakua,
Onetsi gagixuz,
¡Aguŕ, Ama mařia!
¡Aguŕ, aguŕ, aguŕ!

# IXAŔ EDEŔ-EDEŔ

(*Bizkayeraz*)

Ixaŕ edeŕ-edeŕ,
Zoragaŕija,
Donokijan, donokijan
Zara, Miren garbija.
Ixaŕ edeŕ,
Zoragaŕija,
Zara, Miren garbija.
Miren garbija.
Goxeko ixaŕa
Ezta ain edeŕa,
Zeu-Soŕkundian
Zara garbi ta edeŕa.
Ixaŕ edeŕ,
Zoragaŕija,
Zeure Soŕkundian,
Miren laztantxuba.

## ZEURE EGUNA

(*Bizkayeraz*)

Eldu da, Miren Deuna,
Zeure egun edeŕa;
Zeugana gatos, Ama,
Aguŕ-egiťera.

Jabon zeure semiok,
Ama maťetxuba,
Eŕuki geuri, aŕen,
Ez aiztu iñoz geugaz.

*Galastegi.*

## AGUŔ, MIREN DEUNA

(*Bizkayeraz*)

Aguŕ, Miren Deuna,
Neskutz on-edeŕa,
Aguŕ, Ama maťe,
Itxasoko ixaŕa;
Aguŕ, Ama maťe,
Itxasoko ixaŕa.

# GIXONAK EROSTEKO

(*Zubero-eresija*)

Gixonak erosteko
Gurutzan il zintzan ori,
Geronek nekaltzeko
Zegañija dozun ori.
Eskaŕge geu Zeutzako,
Baña, aŕen, azketsi, Jauna,
Gomuta-exu odola
Oŕ ixuri zebala.

*Arana-Goiri.*

# AMA GOIKUAŔI *

(*Bizkayeraz*)

Miren, aguŕ, Ama,
Ama maŕagaŕija,
Bizkaya'ren euzkija,
Jaunaren Ama laztana, aguŕ.
Are seme maŕekoŕak
Zeugana elduta
Negaŕ-bijotzaz,
Lepuan kate gogoŕak.
¡Miren, Amatxu!
¡Miren, Amatxu!
¡Amatxu!
Aŕtu exuz negaŕok
Ta jabon bizkaŕaŕok
Maŕetasunaz,
Ta Bizkaya,
Azkatuta,
Zeuria ixango da beti.
¡Bai, aŕen!...

*Arana-Goiri.*

---

* Gounod'en *Ave Maria* lez abestuteko.

# ARALAŔ'KO MIKEL DEUNARI

*Mikel Mikel*
*Mikel, geuria,*
*Zaindu, zaindu,*
*Geu-Abeŕija.*

Guazan, euzkotaŕok,
Aralaŕ mendira,
Geure Mikel deunari
Aguŕ-egiteŕa.

Aralaŕ'ko tontoŕa
Maŕagaŕi yaku;
Bertoko Mikel deuna
Bijotz-baŕu dogu.

Euzkadi abeŕitzat
Dautoŕgun gustijok;
Bere Goiko Jauna, be,
Eztogu ukatuko.

Ziñeskintzea autoŕtu
Daigun bildur-barik,
Eta gogoŕ didaŕ-ein:
¿Nor Jabe lakorik?

Areyuak eraso
Egin legiskegu;
Aren auŕka laguntzat
Mikel eukikogu.

Mikel deuna zuŕ dago
Aralaŕ mendijan,
Euzkadi aldezteko
Zoritxaŕ-aldijan.

# MIKEL DEUNARI AZKEN-AGUŔA

*Aguŕ gure Mikel deun,*
*Zaindari maĺioi:*
*lagun-ixan zakiguz*
*maĺe-zauguzanoi.*

Entzun euzkotaŕ onein
Eskari sutsuba:
Jauŕtixu Abeŕiĺik
Bere etsai ankeŕa.

Goiko Urtzi nai dogu
Jabe Jaun bakaŕtzat,
Eta ziñeskintza bat
Euzkotaŕ danontzat.

Bai-guaz Aralaŕ'tik
Gogotsu didaŕka:
¡Gora Urtzi Goiko Jauna!
¡Gora Mikel deuna!

# KISTO ZERURATU DA

*(Nabaŕa-abesţija)*

Kisto zeruratu da,
Gizon bat bakaŕik,
Gizon bat bakaŕik eta
Besuak zabalik.
Kisto zerura dua,
Gizon bat bakaŕik,
Gizon bat bakaŕik eta
Besuak zabalik.

*Eŕikua.*

# GABON-ABESTIJAK

(Cantos de navidad)

# ATOŔ, MUTIL...

(*Bizkayeraz*)

Atoŕ, atoŕ, mutil, etxera,
Gaztaña zimelak jatera,
Gabon-gaba ospatuteko
Aŕaren ta amaren onduan.
Ikusiko dok aŕa baŕeka,
Ama be poz-atsegiñez.
Eragijok, mutil,
Auŕeko danbolin oŕi,
Gaztaña eŕe-aŕtian,
Gaztaña eŕe-aŕtian,
Txipli-txapla, pun,
Gabon-gaba pozik
Igaro daigun.

*Eŕikua.*

# GABON-GABIAN

*(Bizkayeraz)*

Gabon-gabian oŕuten đogu
Gustijok apari ona:
Besigu, ļebatz, makalau, saltza,
Bakotxak ƀerak al-dauna.
Gero txuŕun-plin-plan,
Ardau ta paŕaŕa,
Katubak aŕtuta,
Zabu-zabuka.

*Eŕikua.*

# ¿NUN DAGO, AMANDRIA?

(*Bizkayeraz*)

NESKATIĨAK:

¿Nun dago, Amandria,
Zeroŕen Semia,
Zeroŕen Semia,
Donokiĩik jatsiĩa
Geure Gaizkalia,
Geure Gaizkalia?

Berak argiĩu daidan
Neure gogotxuba,
Neure gogotxuba,
Neuk ikusteko gero
Donoki-bidia,
Donoki-bidia.

AMA NESKUTZAK:

Oŕ, goiko munatxuban,
Oñak oŕtotzean,
Oñak oŕtotzean,
Kerixa dagitsoen
Ganeko arantzan,
Ganeko arantzan.

Antxe dago, ba, neure
Bijotz-semetxuba,
Bijotz-semetxuba,
Antxe dago, bai, antxe
Neure maĩasuna,
Neure maĩasuna.

*Eŕikua.*

## ¡OI, BETLEEM!

(*Laburdi-abestija*)

¡Oi, Betleem!
Ala egun zure garaya,
¡Oi, Betleem!
¡Ongi bai-du distiratzen!
Zuganik eldu den argiyak
Betetzen tu bazteŕ guziyak.
¡Oi, Betleem! ¡Oi, Betleem!

*Eŕikua.*

## ¡O, EGUBEŔI-GAUA!

(*Laburdi-abestija*)

O, Egubeŕi-gaua,
Bozkariozko gaua,
Agitz poztuten duzu
Biotzean kristaua.
Mundu guzia duzu
Zorionez betetzen,
Eŕaiten ba-diozu
Mesias dela soŕtzen.

*Eŕikua.*

# BELEN'EN SOŔTU ZAIGU

*(Nabaŕa-eresija)*

Belen'en soŕtu zaigu Jinkoa
Aŕatseko gaberdian,
Otzez dardaraz dago gaxua
Lasto-pizkaren ganian.
Bero ahalez bero dezagun,
Apa-emanez musuan.

*Eŕikua.*

Maŕe-maŕe-dot nik neure Ama,
Neu soŕtu nindubalako;
Baña seintxu au maŕiago dot,
Nigandik jayo dalako,
Ta gurutzian gero odol deuna
Ixuri eingo daulako.

*Eŕenderia Abea.*

# EŔI - ABESTIJAK

(Cantos populares)

# AGUŔ, ĴAUNAK

(*Laburderaz*)

Aguŕ, Ĵaunak,
Ĵaunak, aguŕ,
Aguŕ ta erdi.
Ĵainkoa'k denok
Egiñek gire,
Zuek eta gu ere bai;
Aguŕ, Ĵaunak,
Ĵaunak, aguŕ,
Emen gire.

*Eŕikua.*

# MATZAREN OṘPOTIK

(*Bizkayeraz*)

Matzaren oṙpotik datoŕ
Mama gozua,
Mama gozua,
Edango neukela
Beterik basua.
¡Klink!
Beterik basua.

Nik zuri,
Zuk niri
Aguŕ-egiñaz alkaŕi
Basua txit garbi
Biaŕko da ipiñi.

*Eŕikua.*

# TXAKOLIN

(*Bizkayeraz*)

Txakolin, txakolin, txakoliñak on-egin:
Gustijok edaigun alkaŕekin.
Bijotza pozez betetan da txuŕut bat aŕturik:
Eztago iñun aulako edakirik.

# AGATE DEUNAREN ABESTIJAK

(*Bizkayeraz*)

Aintzaldu daigun Agate deuna,
Bijaŕ da, ba Deun-Agate;
Etxe onetan zorijon utza
Betiko euko al-dabe.

Deun-Agate'na batzeko gatos
Aurten be igazko berberak:
Igaz lez aŕtu gagixubez ta
Zabaldu zuben sakelak.

Ropero Vasco'k ardurea dau
Geure txiruak janzteko:
Emogozube, aŕen, zertxubait
Geuk ara eruateko.

Baŕa Bilbo'ko euzko-ikastolak
Biaŕan auŕkitzen dira;
Eskatzen dogu arentzako be,
Jaŕai-daŕezan auŕera.

Opautzubeguz osasuna ta
Jaun-Goikua'ren eskaŕa;
Zuben biŕaŕtez txiro ta umiak
Eztabe ixango biaŕa.

Orain bai-guaz alde-egiŕera,
Aguŕ-daitzugu gogotik;
Agate deuna bitaŕte dala
Ezexube ixan dongerik.

*Bustintza.*

# JON DEUNAREN ABESTIJAK

(*Bizkayeraz*)

San Juan Anteportaletaña,
Larunbata-aŕatsaldian,
Amalau atso tronpeta joten
Motrol̄o baten ganian.

*¡Uŕa, uŕa, uŕa San Juan'etan,*
*Jantzan egingogu ipaŕ-axelan!*
*¡Ujuju!*
*Deun-Jon'etara guaz gu.*

*Eŕikua.*

I

Deun Jon'az zorgin, eltxo ta zoŕi
Gustijak dira eŕetan,
Soluetako landara onak
Garbi geratu daŕezan.

*¡Gora, gora, gora garbil̄asuna!*
*¡Aupa, bizkoŕ egin subari bira!*
*¡Ujuju!*
*Deun-Jon'etara guaz gu.*

II

Gure abeŕi-ekandu onak
Gustiz garbirik izteko,
Itz dongea ta jantza zikiña
Eŕe daiguzan betiko.
*¡Gora, gora, gora...*

*Bustintza.*

## MAÑARI'T̃IK ASI TA...

*(Bizkayeraz)*

Mañari'ȓik asi ta
Uŕkijola'raño
Ezta auŕkitzen besterik
Aldapea baño.

Durango'n bezkalduta
Mañaria'n gora,
Txakuŕtzulo'n jausi naz
Ipurdijaz gora.

*Eŕikua.*

## ANDRA ONA DAUN GIXONA

Nire auzo maȓiak,
Josepe ta Manu,
Pipa aŕtuko neuke
Tabakua ba'nu.

Pipaz gañera baȓa
Nok emon ba'lego,
Garbiȓuko neukela
Botiȓa bat ardo.

Andra ona daun gixona
Nik ez det eŕuki,
Jaungoikua'k emanik
Nik alan eduki.

*Eŕikua.*

# NI MENDEXA'RA

(*Bizkayeraz*)

Ni Mendexa'ra Deun-Kepa-aldijan
Bai-nua bai, jayetara.
¡Arek, bai, neskatxak
Ederak lirañak,
Leketiaren aldian
Mendexa baseritxuban!
Ta Jon-deunan, ta Jon-deunan,
Beti zaukodaz goguan.

Igaztik ona urtebetia da,
¡Aldi oreren luzia!
Ordutik ona
Gau ta egunetan
Aldatu leike gastia,
Aldatu leike gastia.
Ta Jon-deunan, ta Jon-deunan
Beti zaukodaz goguan.

# OŔA OŔ GOIKO

*(Bizkayeraz)*

Oŕa oŕ goiko
Areiztitxu baten
Kukubak umiak
Egin yozak aurten.
Kukubak egin,
Amiĺotsak jan,
¡Axe, bere, kukubaren
Zoritxaŕa zan!

*Eŕikua.*

¡Aupa, mutiĺak,
Gogoŕ jantza-egin!
Mai onen ganian
Izteai eragin.
Bijotz alaya
Beti geuria,
Zirkin eta zirkin
Jardun atseden-baga.

*Altuna.*

## TXERU

(*Bizkayeraz*)

Txeru kartzelan dago,
Damia kanpuan;
Txeru'k gura leukela,
Ba'leuko albuan.
¡Txeru!
Artakamara, motxoliñua,
Domingilua, lai-rai-lon.

*Eŕikua.*

Ama, zeu-barik laŕi
Nago neu benetan:
Erdu ta poztu naxu
Zeure besoetan.
¡Ama!
Triskan egixu, neskatotxuba,
Mutikotxuba, lai-rai-lon.

*Bustintza.*

# ALDAPEKO

*(Gipuzkeraz)*

Aldapeko sagaŕaren adaŕaren puntan,
Puntaren puntan
Txoriya dago abeslari.
*Txiruliruli, txiruliruli,*
¿Nok dantzatuko ote-du eresitxu ori?

*Eŕikua.*

Pijoka ta alaitsu bai-dabil adaŕik-adaŕ
Txori poliťa
Bere lagun maťetxubakin.
*Txiruliruli, txiruliruli,*
¡Oi, ene txoritxuba gogoz maťe dot nik!

*Altuna.*

# LENENGOTXU ORI

(*Bizkayeraz*)

*La lara la la,*
*La la lara la lara,*
*La lara la la, la,*
*La lara la la.*

Lenengotxu ori,
Punta-biatz ori,
Beste gustijen aŕtian
Txikaŕa dok ori.
*La lara la la...*

Bigaŕentxu ori,
Punta-biatz ori,
Beste gustijen aŕtian
Nagija dok ori.
*La lara la la...*

Irugaŕen ori
Punta-biatz ori,
Beste gustijen aŕtian
Luzia dok ori
*La lara la la...*

Laugaŕentxu ori,
Punta-biatz ori,
Beste gustijen aŕtian
Sendua dok ori.
*La lara la la...*

Boskaŕentxu ori,
Punta-biatz ori,
Beste gustijen aŕtian
Lodija dok ori.
*La lara la la...*

*Eŕikua.*

Amaren pozkaŕi
Eu az, ben-bentan
Lo-egik, ere kutuna,
Neure besoetan.

*Altuna.*

# MAŔKINA-ETXEBAŔI'KO

*(Bizkayeraz)*

Maŕkiñetxebaŕi'ko
Senaŕ-emaste bik
Alaba edeŕa euken,
Jaungua'k emonik,
Eta amaŕ mila dukat
Luŕpian jabonik,
Ikusten ezebela
Egunen argirik.

*Azkue.*

# UŔAN-PLAN-PLAN...

*(Bizkayeraz)*

Uŕan-plan-plan ixiĺik,
Lapiko jo ta itxuli,
Bijok ezkonduko gara
Bijaŕ edo etzi.
Bijaŕ, bijaŕ,
Bijaŕ edo etzi.
Ai, Anjela, ekasu ardaua,
Ai, Antontxu, eda-ixu gitxitxu.

*Eŕikua.*

# BASA-TXORITXU

*(Bizkayeraz)*

Basa-txoritxu musturŕ-luziak
Ez jun donokira biḹa;
Aingerutxurik biaŕezkero,
Oŕa oŕ gure mutiḹa.
Bere mosuba eduŕa da ta
Suba bijotz ta espanak,
Berton urturik bixiko dira
Nire bulaŕa ta zanak.

¡Ai, nok leukezan uŕezko oŕatza,
Uŕe-miesa ta arija,
Uŕez asi eta amaŧuteko
Seintxu onentzat janzkija!
Laŕosatxubak bost oŕi daukoz,
Klabeliñeak amabi;
Gure umetxuba gura dabenak
Eskatu bere amari.

*Azkue.*

# AŔANTZALIAK

*(Bizkaueraz)*

Aŕantzaliak baru-ausiŕa
Kanpora doyaz zintzorik;
Betos gustijok osasunagaz
Eta iñor bere ez gexorik.

*Otzaratxu bat,*
*Otzaratxu bi,*
*Aŕaña daloŕ*
*Portura beti,*
*Besigu, lebatz, sardiña ta atun*
*Ta beste asko ganetik.*

Eŕira datos ipaŕ-aldetik
Belak betian ontzijak;
Ondo dirudi egun argiŕan
Belan dabiŕen ontzijak.

*Otzaratxu bat...*

*Azkue.*

# BASEŔITAŔAK GERADE GU

*(Gipuzkeraz)*

Baseŕitaŕak gerade gu,
Ezin gezake ukatu.
Baña kaletaŕak bezin ondo
Soñua jotzen degu.
La, la, la, la-ra-la...

Ludiyan dira bi gauza
Niri gustatzen zaitzanak:
Txakolin goŕi gozua eta
Ogi txuri biguna.
La, la, la, la-ra-la...

# USO ZURIJOI

*(Bizkayeraz)*

Uso zurijoi, ¿nora ua
Ortze zabalaz egazka?
Mendi-aranak zuri yagozak,
Lats-iŕuŕijak leŕu dozak.
Uso zurijoi ¿nora ua?
¿Abeŕi-ataz eyotan?

Aizkidetxuboi ¿zegaŕik
Iŕun dagistak iŕaun oi?
¿Mendijok dozak geure mendijak?
¿Eŕijau-ete asabena?
Aŕen, itxeistak juaten
Ez ikusteko Ama iltzen?

## URTZUA'K EDEŔ LEYO

(*Nabaŕa-eresija*)

Urtzua'k edeŕ leyo,
Lantana'k edeŕago;
Lantana'k edeŕago,
Lantana'ko alaba
Urtzua'n eriyo dago,
Urtzua'n eriyo dago.

*Eŕikua.*

## ARTIZAŔA

(*Nabaŕa-eresija*)

Artizaŕa zeruban ageŕtzen denian
Goiti nua ni ere arekin batian.
Saŕtzera egiten du iḻunabaŕian.
Ni ere itxultzen naiz umore onian,
Ni ere itxultzen naiz umore onian.

*Eŕikua.*

# MATXAKARAN BELTZA

*(Nabaŕa-abestija)*

Matxakaran beltza ondorik ondo,
Ondo eta gozo arana.
Oŕa Pantzeske'k beaŕ omen-luke
Gauŕ jostatzeko laguna.
Ez dra-dra, bai dra-dra.
Onen bien eztai-ezkontzetara
Eŕegia zaldiz eldu da.
Ez dra-dra, bai dra-dra.
Eŕegiñare bidian da.

*Eŕikua.*

# MENDEKOSTE BESTETAN

*(Benabaŕa-eresija)*

Mendekoste-bestetan
Aurten Aŕnegi-eŕekan
Istorio bat gertatu izan da,
Kasik ezpeitiot eŕan:
Bost emastek edan dituzte
Amalau pinta arno betan,
Jokaturik kartetan.

*Eŕikua.*

# GOIZIAN GOIZIK

(*Zubero-abestija*)

Goizian goizik jeiki nvndvzvn,
Ezkondv nintzan goizian;
Bai eta ere bitxiz apaindv
Ekhia jelkhi zenian.
Etxekandere zabal nvndvzvn
Egverdi-erditan,
Bai ta ere alhargvntza gaste
Ekhia sarthv zenian.

*Eŕikua.*

# EṘIKO FESTAK ZIRAN

(*Gipuzkeraz*)

Eŕiko festak ziran biramonian,
Eŕiko festak ziran biramonian,
Txuŕut-egiten zuten txoko batian,
Txuŕut-egiten zuten txoko batian,
Lau andre, bat alarguna,
Iru mutxurdin
Jaŕiak itzalian,
Aŕi txabal-txabal bat
Belaunen ganian,
Asi ziran, asi ziran trukian.

*Eŕikua.*

# KUKUŔUKU

(*Bizkayeraz*)

—Kukuŕuku.
—¿Zer guruzu?
—Lekutxu bat.
—¿Zetarako?
—Zuben aŕtian alai jolasteko.
—Kikiŕiki.
—¿Zer da baŕi?
—Ua oŕtik.
—¿Noregaŕik?
—Oŕkatz zoŕotzak ixututen nau ni.

—Kukuŕuku.
—¿Zer guruzu?
—Txiŕatxu bat.
—¿Zetarako?
—Nirekin kukuŕuku ikasteko.
—Kikiŕiki.
—¿Zer da baŕi?
—Ua oŕtik.
—¿Noregaŕik?
—Gangaŕ goŕijak ixututen nau ni.

# IĹUNABAŔA

*(Gipuzkeraz)*

Iĺunabaŕa:
Eguzkiya asten da
Jetxitzen, jetxitzen,
Dis-disera edeŕa
Zayola gutxitzen;
Diamantezko printzak
Zaizkanian galtzen,
Uŕezko bola baten.
Itxuraz da jaŕtzen,
Eta geldi-geldiro
Itxaspera saŕtzen.
Eta geldi, geldi,
Eta geldi, geldi,
Eta geldi, geldi,
Itxaspera saŕtzen, saŕtzen.

*Eŕikua.*

# OROITZEN NAIZ

*(Nabaŕa-eresija)*

Oroitzen naiz, oroitzen,
Etzait aizten.
Matale gaizuak adinbat
Ludiyan nik dut jasatzen;
Jaten dudan ogi-puzka ere
Nigaŕetan dut aŕtutzen.

*Eŕikua.*

# EUN LIBERA BALIO

*(Nabaŕa-eresija)*

Eun libera balio,
Beŕtzenaz ez da kario.
Karga emaiten ba-dio,
Lararai,
Lararai, lararai, lararai...
Karga emaiten ba-dio,
Lasteŕ eŕain du adio.

*Eŕikua.*

# ONTZI AUL BATIAN

(*Gipuzkeraz*)

Ontzi aul batian
Onenbeste lagun
Eztakigu zer beŕi
Aterako degun.
Ganian argi gutxi,
Baŕuban txit ilun;
Guretzat zoriyonik
Ez degu, ez, iñun.
—Ni naiz kapitan-piloto.
—Zu zera kapitan-piloto.
—Neri biaŕ zait obeditu.
—Obeditu.
—Eltzen ba-diyot norbaiti...
—Bonbiḹon, bonbiḹon bera
—Bonbiḹon bat, bonbiḹon bi,
Erayok, Santi, aŕaun oŕi.

*Eŕikua.*

# EŔUKAŔIYA

(*Gipuzkeraz*)

Aspaldiyon ezta gure etxion
Ogirik ikusi,
Baña gauŕ txitxi ta paŕa
Izango da ugariiiiiiiii...
Gauŕ, bai, jana ta edana, labiruŕnlena,
¿Jango ote-degu dana, labirunla?
Gauŕ, bai, jana ta edana, labirunlena,
¿Jango ote-degu dana, labirunla?
¡Ju!

*Eŕikua.*

# NIRE ANDREA

*(Bizkayeraz)*

Nire andrea andra ona da,
Auzuak alan dirauste.
Erosi neban prezijuetan,
Perzijuetan erosi neban,
Erosi neban prezijuetan,
Nik pozik salduko neuke.

Bariketia ba'litz goruba.
Jarduna ba'litz ardatza,
Nire andreak egingo leuke,
Egingo leuke nire andreak,
Nire andreak egingo leuke,
Etxia-bete mataza.

*Eŕikua.*

# AŔANBIĪOTE

*(Gipuzkeraz)*

Aŕanbiīote aŕanbiīote,
Eŕoka'ri semia eman diyote.
Atia jo ta leyora,
Eŕoka'nan semia jayo da.

Atzo, atzo, atzo,
Atzo il ziran amaŕ atso.
Txakoliña merkatzen ezpa-da,
Ilgo dira beste asko,
Atzo, atzo, atzo,
Atzo il ziran amaŕ atso.

Etzi, etzi, etzi,
Etzi ilgo dira emeretzi.

*Eŕikua.*

# ÍNDICE

# ÍNDICE

## EREŚEŔKIJAK

(*Himnos*)


| | Ing. |
|---|---|
| Euzko-Abendearen Ereseŕkija ... ... ... ... ... | 5 |
| Itxaŕkundia ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 6 |
| Oñaz-Loyola eta Likona'taŕ Iñaki, Bizkaya'ren zaindari deunari bizkaŕaŕak ... ... ... ... | 7 |
| Oñaz-Loyola eta Likona'taŕ Iñaki, Gipuzkoa 'ren zaitzari deunari gipuzkoaŕak ... ... ... | 8 |
| Mendigoxalien ereseŕkija ... ... ... ... ... ... | 9 |


## ABESTI ABEŔKOYAK

(*Cantos patrióticos*)


| | |
|---|---|
| ¡Euzkotaŕak gara! ... ... ... ... ... ... ... ... | 13 |
| Jagi, Jagi, Euzkotaŕak ... ... ... ... ... ... ... | 14 |
| ¡¡Lenago il!! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 15 |
| ¡Ene Ama! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 16 |
| Mendiko negaŕa ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 17 |
| Gaurik baltzena ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 18 |
| Otseña zara ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 19 |
| Uŕkiola'rako bidian ... ... ... ... ... ... ... ... | 20 |
| ¡¡Ken!! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 21 |
| Gure didaŕak ez entzuteko ... ... ... ... ... ... | 22 |
| ¡¡Atera, belaŕimotzak!! ... ... ... ... ... ... ... | 23 |
| ¡Gora Euzkadi! ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 24 |
| Abestu, euzkotaŕak ... ... ... ... ... ... ... ... | 24 |

Ing.

¡Gaizka-daigun! ... ... ... ... ... ... ... ... ... 25
Oraingo Bizkai-bizkaŕak ... ... ... ... ... ... ... 26
Geure ikuŕiña ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 27
Arana eta Goiri'taŕ Sabin'i ... ... ... ... ... ... 28
¡Ai, Mikel, Mikel, Mikel! ... ... ... ... ... ... ... 29
¡Boga, boga! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 30
Guazan mendirik-mendi ... ... ... ... ... ... ... 31
¡Ai, Kepandon! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 32
¿Zetara atoŕ ona? ... ... ... ... ... ... ... ... ... 33
¡Azkatu bedi! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 34
Abeŕi maiiari ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 35
Aitonaren esana ... ... ... ... ... ... ... ... ... 36
Zeuretzat bixitxa ... ... ... ... ... ... ... ... ... 37
Goi-gorantz beti ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 38
Gertu gagoz ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 39
¡Oñazez! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 40
Itxaŕtu adi, euzko-semia ... ... ... ... ... ... ... 41
Txakuŕ-Txiki ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 42
Goiko mendijan ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 43
Nik bai-dut maiteño bat ... ... ... ... ... ... ... 44
Anton Aizkoŕi ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 45
Iruten ari nuzu ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 46
Ilazkiñan ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 47
Txori uŕetxindoŕa ... ... ... ... ... ... ... ...... 48
Uŕundik ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 49
Txoritxubak kayolan ... ... ... ... ... ... ... ... 50
Agota ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 51
Alostoŕia ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 52
¡Jantzara, mutiīak! ... ... ... ... ... ... ... ... ... 53

| | Ing. |
|---|---|
| Txakuŕ galduba ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 54 |
| Goizian on ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 55 |
| Txori uŕetxindoŕa udan ... ... ... ... ... ... ... | 56 |
| Leyotxutik ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 57 |
| Lili edeŕ bat ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 58 |
| ¡Iluna!... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 59 |

## MAŤASUN-ABESTIJAK

*(Cantos amatorios)*

| | |
|---|---|
| Ortzeko ixaŕ edeŕok ... ... ... ... ... ... ... ... | 63 |
| Itxaro-ixaŕa ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 63 |
| Maitia, ¿nun zira? ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 64 |
| Egvunīo batez ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 65 |
| Betiko aguŕ ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 66 |
| ¡Mendiyan bai-da edeŕ! ... ... ... ... ... ... ... | 67 |
| Sarataŕa naizela ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 68 |
| Aŕanoak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 68 |
| Luŕaren pian ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 69 |
| Muthil gastia ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 69 |
| Gastetasunak bai-nerabiĺa ... ... ... ... ... ... | 70 |
| Berteŕetxen khantoria ... ... ... ... ... ... ... | 71 |
| Bortian Ahvzki ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 72 |
| Nere maitea ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 73 |
| Argizariak zelvtik ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 74 |
| Neskatiĺa bat ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 75 |
| Orain bai-nuazv ... ... ... ... ... ... ... ... ... | 76 |

Ing.

Txorifua, ¿nurat za? ... ... ... ... ... ... ... ... 76
Zelvko izaŕen bidia ... ... ... ... ... ... ... ... 77
Polita zeradela ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 78

SIASKA-ABESTIJAK

(*Canciones de cuna*)

Lo, lo ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 81
Ni ez naiz somoŕua ... ... ... ... ... ... ... ... ... 81
Seaska-aldian ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 82
Nere auŕa, lotxo ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 82
Auŕtxuoi ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 83
Bonbolontena ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 84
Lua, lua ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 85
Itxasua ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 86
Txalo-pin-txalo ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 87
Bolon bat eta bolon bi ... ... ... ... ... ... ... ... 88
Binbili-bonbolo ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 88

USKUŔTZ-ABESTIJAK

(*Cantos religiosos*)

Abestu dayogun ... ... ... ... ... ... ... ... ... 91
Ogi zerutik ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 92
Goxeko ixaŕa ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 93
Abestu biaŕ-dogu ... ... ... ... ... ... ... ... ... 94
¡¡Aguŕ!! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 95

INSTITUCIÓN SANCHO EL SABIO
OBRA SOCIAL
Caja de Ahorros de Vitoria



Ing.

Ixaŕ edeŕ-edeŕ ... ... ... ... ... ... ... ... ... 96
Zeure eguna ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 97
Aguŕ, Miren deuna ... ... ... ... ... ... ... ... 97
Gixonak erosteko ... ... ... ... ... ... ... ... ... 98
Ama goikuari ... ... ... ... ... ... ... ... ... 99
Aralaŕ'ko Mikel deunari ... ... ... ... ... ... ... 100
Mikel deunari azken-aguŕa ... ... ... ... ... ... 101
Kisto zeruratu da ... ... ... ... ... ... ... ... ... 102

## GABON-ABESTIJAK

*(Cantos de Navidad)*

Atoŕ, mutil ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 105
Gabon-gabian ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 106
¿Nun dago, Amandria? ... ... ... ... ... ... ... ... 107
¡Oi, Betleem! ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 108
¡O, Eguberi-gaua! ... ... ... ... ... ... ... ... ... 108
Belen'en soŕtu zaigu ... ... ... ... ... ... ... ... 109

## EŔI-ABESTIJAK

*(Cantos populares)*

Aguŕ, Jaunak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 113
Matzaren oŕpotik ... ... ... ... ... ... ... ... ... 114
Txakolin ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ...... 115
Agate deunaren abestijak... ... ... ... ... ... ... 116
Jon deunaren abestijak ... ... ... ... ... ... ... 117

[library stamp]

Ing.

Mañari'tik asi ta ... ... ... ... ... ... ... ... ... 118
Andra ona daun gixona ... ... ... ... ... ... 118
Ni Mendexa'ra ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 119
Oŕa oŕ goiko ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 120
Txeru ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 121
Aldapeko ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 122
Lenengotxu ori ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 123
Maŕkiña-Etxebaŕi'ko ... ... ... ... ... ... ... ... 124
Uŕan-plan-plan ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 124
Basa-txoritxu ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 125
Aŕantzalia ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 126
Baseŕitaŕa gerade gu ... ... ... ... ... ... ... ... 127
Uso zurijoi ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 128
Urtzua'k edeŕ leyo ... ... ... ... ... ... ... ... ... 129
Artizaŕa ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 129
Matxakaran beltza ... ... ... ... ... ... ... ... ... 130
Mendekoste-bestetan ... ... ... ... ... ... ... ... 130
Goizian goizik ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 131
Eŕiko festak ziran ... ... ... ... ... ... ... ... ... 131
Kukuŕuku ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 132
Ilunabaŕa ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 133
Oroitzen naiz ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 134
Eun libera balio ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 134
Ontzi aul batian ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 135
Eŕukaŕiya ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 135
Nire andrea ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 136
Aranbilote ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 136